



euskal herriak
bere eskola

SARASATEKO ADIERAZPENA

"Gu gaurko euskaldunok, gure aitasoen illezkorren oroipenean, bildu gera emen gure legea gorde nai degula erakusteko"

Gu, gaurko euskaldunok, gure arbasoen oroimenean eta dagokigunaren aldarrian bildu gara hemen gure legea gorde nahi dugula erakusteko, gure hezkuntza sistema eraiki nahi dugula erakusteko.

Gu, gaurko nafarrok, arabar eta lapurtarrok, xiberutar, bizkaitar eta gipuzkoarrok. Gu, gaurko euskaldunok, nazio bat garela eta horregatik eskubide guztiak dagozkigula uste dugu. Hezkuntza Eskubideak dagozkigula uste dugu. Eta horiek aldarrikatu eta borrokatzeaz gain eraikitzeke borondate osoa dugu.

Horregatik guk, gaurko herritarrok, honako adierazpena egin nahi dugu:

BAGA

Gaur egun Euskal Herrian ditugun legedi eta markoek ez dituzte geure beharrak asetzen. Ez dituzte gure eskubideak onartzen. Ez dute Euskal Herria onartzen ez errespetatzen.

BIGA

Horren aurrean euskaldunok aspalditik altxatu eta tresna berriak eraiki ditugu, euskaraz ikasi ahal izateko, Euskal Herria ikasi ahal izateko edo gure herriaren beharrak asebetetzeko.

HIGA

Proiektu horiek garatze bidean jartzeak, herri bezala ditugun ezintasun estrukturalak zeintzuk diren aurrez aurre topatzeraino eraman gaitu. Muga horiek errealak dira eta lankidetzaz, elkarlanaz eta akordioaz baino ezin dira gainditu.

LAGA

Zorionez milaka gara lan horri ekin nahi diogunak. Milaka berezko curriculum edo unibertsitatea nahi dugunok. Milaka euskaldunduko duen eskola nahi dugunok. Eta milaka gara euskarazko hezkuntza nahi dugunok.

BOGA

Milaka gara, eta milaka garela erakutsi behar dugu. Hori dela eta, hemen gaudenok Hezkuntza Sistema Nazionala eraikitzeke deialdia luzatzen dugu, egunez egun, herriz herri, auzoz auzo, hezigunez hezigune.

SEGA

Deialdi hori ez dugu hutsetik abiatzen. Orain arte egindakoa bildu eta aurrera ekiteko garaia heldu da. Eraikuntzarako garaia da, beraz. Eta hemen gaudenok eraikuntza hori bultzatu eta Hezkuntza Sistema Nazionala eraikitzeke bide berriak jorratzeko prest gaude. Legedi inposatuak gainditu eta gurea eraikitzeke garaia da.

ZAI

Gurea erdietsi eta lurralde osora hedatzeko, ordea, euskal herritarrok gure etorkizuna erabakitzeke dugun eskubidea bermatu behar zaigu. Burujabetza. Herri honek burujabetza behar du, kolore anitzez Hezkuntza Sistema Nazionala ere egituratu zein antolatu ahal izateko.

*2009ko Ekainaren 27ean,
Iruñeko Sarasate Pasealekuko Foruen Monumentuan*